

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Behin betiko onartzea ezkontza zibilak egiteko udal aretoen erabilera pribatiboaren tasa arautzen duen zerga ordenantza

Erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero Zalduondoko Udalean ezkontza zibilak egiteko udal aretoen erabilera pribatiboaren tasa arautzen duen zerga ordenantza ezartzeko erabakiaren aurka hura jendaurrean egon den arauzko epean, behin betiko onartuta geratzen da, eta osorik argitaratzen da ordenantzaren testua, 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16.4 artikuluan eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako:

EZKONTZA ZIBILAK EGITEKO UDAL ARETOEN ERABILERA PRIBATIBOAREN TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA

I. KAPITULUA. XEDEA

1. artikulua

Ordenantza honen xedea da arautzea ezkontza zibilak egiteko udal aretoen erabilera baimentzea Zalduondoko udalerrian.

Tasa honen zerga gaia da tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu berezia edo erabilera pribatiboa egitea; alegia, Zalduondoko Udalaren aretoak edo eraikinak erabiltzea ezkontza zibilak egiteko, eta erabilera horrek berekin dakartzan udal zerbitzuez baliatzea.

Ekitaldi horiek guztiz zibilak izango dira, edozein erlijio sinesmenetik aparte; horregatik, ezingo da erlijio motiborik edo adierazpenik erakutsi. Era berean, ideologia, iritzi edo antzeko ezein zabalkunde edo aldarri egitekotan, indarrean dagoen legeria zorrotz betez egin beharko da.

II. KAPITULUA. BAIMENA

2. artikulua

Alkateak edo hark eskuordetzen duen zinegotziak eman ahalko du baimena ezkontza zibiletarako gordetako edozein leku erabiltzeko, aurrez jasota Zalduondoko Udalaren bulego orokorretara eskaera zuzendu behar duen pertsonak edo senitartekoak aurkeztu beharreko dokumentazioa.

III. KAPITULUA. PROZEDURA HASTEA

3. artikulua

Ezkontza zibilak egiteko eskaerak Zalduondoko alkateari zuzendu behar zaizkio, eta udalaren bulego orokorretan aurkeztu behar dira.

Eskaerak udalak horretarako emango duen eredu normalizatuan egin behar dira, edo bestela eredu horretako puntu guztiak jasotzen dituen dokumentu batean, ekitaldia baino bi hilabete lehenago gutxienez. Eskaerak udalaren erregistro orokorrean aurkeztu behar dira.

Oro har, eta Zalduondoko udalerraren barruan, ezkontzak udaletxeko ekitaldi aretoan egingo dira, nola eta ez dagoen gordeta beste erabilera batzuetarako.

4. artikulua

Eskaeretan datu hauek jaso behar dira:

- a) Ekitaldiak egiteko baimena eskatzen duenaren izena, deiturak, bizilekua eta identifikazioa.
- b) Ezkontza zibila egiteko egintza administratiboa eskatu aurretik, nahitaez, dagokion espediente hasi eta izapidetu behar da eskumena duen erregistro zibilean.
- c) Eskaerak dokumentuen sarrera erregistroan aurkeztean, aurrez tasa ordaindu izana egiaztatzen duen ordainagiria erantsi beharko da, eta, ezkontzaren eguna eta ordua finkatzeko, sarreren hurrenkera kronologikoari erreparatuko zaio, zorrotz.
- d) Eskaeran adierazi behar da ezkontza zibila egiteko lehenesten den eguna, ordua eta lekua.
- e) Oro har, ekitaldi hauek udalaren ekitaldi aretoan egingo dira.
- f) Eskatzailearen sinadura.
- g) Ekitaldiaren deskribapen laburra eta beharko den materiala (megafonia, mahaiak, aulkiak, etab.).
- h) Ekitaldiak zenbat iraungo duen gutxi gorabehera.

5. artikulua

Eskaerak ez baditu betetzen aurreko artikuluan adierazten diren baldintzak, ahalik eta presa handienarekin eskatuko zaio interesdunari ekitaldia baino lehen edo ostean hutsa zuzentzea edo nahitaezko dokumentuak aurkeztea.

IV. KAPITULUA. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA

6. artikulua

Ezkontza zibila egiteko eguna eta ordua alkateak edo hark eskuordetutako zinegotziak finkatuko ditu. Instrukzioa egingo da estu lotuz eskaerak aurkeztu diren hurrenkerari eta, ahal dela, aintzat hartuz eskatzaile bakoitzak adierazitako lehentasunen hurrenkera.

Eskaerak aurkeztu diren hurrenkerari ez lotzea ere gerta liteke, baldin eta premia aparteko edo urgenteko gorabehera objektiboak badaude.

7. artikulua

Eskaera ikusita, alkateak edo hark eskuordetutako zinegotziak baimenduko du aretoa edo leku publikoa ezkontza zibila egiteko erabiltzea, zeina, oro har, 3. artikuluan ezarritakoa izango baita.

Aparteko izaeraz, beste areto edo leku publikoak erabiltzea baimendu ahal izango da.

8. artikulua

Ezkontza zibilak lanegunetan edo jaiegunetan egingo dira, horretarako jarrita behar diren udal baliabideak.

Zerga kuota gisa tarifa hauek aplikatuko dira:

- Ezkontza zibila egitea: 50 euro

9. artikulua

Ezkontza zibilak egiteko ordutegia hau izango da: 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Ekitaldia ezin izango da izan bi ordu baino luzeagoa.

V. KAPITULUA. SORTZAPENA ETA SALBUESPEN-HOBARIAK

10. artikulua

Tasa eta ordaindu beharra sortzen da ezkontza zibila egiteko edozein udal aretoaren erabilera pribatiboa eskatzen den unean.

Ezkontza zibila egiteko zerbitzua eskatzen duten subjektu pasiboek, eskaerarekin batera, tasa udal diruzaintzan ordaindu izana egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute.

Eskatutako zerbitzua ez da emango dagokion ordainketa egin ez bada.

Subjektu pasiboari egoztekoak ez diren arrazoiaren ondorioz ezezkoa ematen bazaio eskatutako erabilera pribatiboari, itzuli egingo da ordaindutako zenbatekoa.

11. artikulua

Ez da salbuespenik egingo edota hobaririk emango ordenantza honek arautzen duen tasan.

VI. KAPITULUA. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

12. artikulua

Kontserbazio ona bermatzeko, ekitaldira joaten direnek ez dute egingo udal aretoak hondatu edo kaltetzea ekar dezakeen inolako ekintzarik. Baimenaren titularra izango da ekitaldian udal ondasunei eragin lekizkiekeen kalte eta galeren erantzulea.

Inola ere ezingo da udal aretoetan sartu adierazitako gehieneko edukiera baino pertsona gehiago.

13. artikulua

Senitartekoek eta/edo adiskideek udal aretoa apaindu edo modu berezian egokitu nahi badute, garaiz eman beharko diote udalari horren berri, dagokiona erabaki dezan, betiere lekuaren harmonia eta ezaugarriak errespetatuz eta haien kontura izanik hori dela-eta sortzen diren gastuak. Ekitaldia egiteko zerbitzu osagarriak interesdunak jarriko ditu, bere kontura jarri ere, Zalduondoko Udalaren gainbegiratzea gorabehera.

14. artikulua

Aparteko izaeraz ezkontza zibilak egiteko baimentzen bada 3. artikuluan jasotakoa ez den beste leku publiko baten erabilera, udalak hesitu egin dezake leku publikoa, aurrez aipatutako eskubide eta betebeharrekin.

Zalduondo, 2017ko urtarrilaren 25a

Alkatea

GUSTAVO FERNANDEZ VILLATE